

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 22a

100. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (22. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Tuterako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiri buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Irismena (6. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
  - IV.1. 2010eko ekitaldiari dagokion Udalaren Kontu Orokorra (6. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
  - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomikoa eta finantzario bateratua (6. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako aholkuak betetzea (8. or.).
- V. 2010eko kontu orokorraren laburpena (8. or.).
  - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-maila (9. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (10. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (11. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua (12. or.).

### **VI. Iruzkina, ondorioak eta aholkuak (13. or.).**

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (14. or.).

VI.4. Inbertsioak (15. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (15. or.).

VI.6. Gorabeherak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (17. or.).

VI.8. Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresariala (17. or.).

1 Eranskina. Castel Ruiz entitate publiko enpresarialaren urteko kontuen laburpena, 2010 (19. or.).

2 Eranskina. Udalaren 2010eko memoria.

(Oharra: 2. eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan eta honako web helbidean:


[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

### **I. SARRERA**

Comptos Ganberak, 2011ko ekitaldirako bere jarduera-programari jarraituz, Tuterako Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Tuterako Udalak, 2010eko urtarrilaren 1ean, 35.268 biztanle zituen.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osakera ondoko grafikoan agertzen da:



2010eko ekitaldia ixtean, erakunde horien guz-tien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazio Publikoaren arloa: Tuterako Udalak, zerbitzu publikoak emateko, Uren Udal Batzarra erakunde autonomoa eratu du. Honako hauek dira erakunde horien zenbateko nagusiak:

Erakundea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Egiaz dagoen langile-taldea 2010-12-31n
Udala	43.001.428	53.635.239	415
Uren Udal Batzarra	2.813.958	3.769.733	24
Bateratzearen doitzeak	0	0	
Bateratua, guztira	45.815.386	57.404.972	439

2010ean Udalak ez dio inolako ekarpenik egin Uren Udal Batzarrari.

- Enpresaren Sektore Publikoa. 2009an, Udalak Castel Ruiz erakunde autonomoa entitate

publiko enpresarial bihurtzea onetsi zuen, eta 2010ean hasi zituen bere jarduerak.

Entitate publiko enpresarial horren 2010eko aurrekontuari buruzko informazioa honako hau da, Udalaren memoriaren arabera:

Entitate publiko enpresariala	Aurrekontuko diru-sarrerak	Aurrekontuetako gastuak	Langileak
Castel Ruiz	1.602.694	1.531.306	10

Hauek dira bere datu ekonomikoak urteko kontuen arabera:

Entitate publiko enpresariala	Diru-sarrera ekonomikoak	Gastu ekonomikoak	Ekitaldiko emaitzak
Castel Ruiz	277.443	1.605.178	(1.327.735)

2010ean Udalak 1,3 milioiko ekarpen egin zion entitate publiko enpresarial horri, ustiapenerako diru-laguntza gisa .

Gainera, Udala Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean sarturik dago, eta horren bidez ematen ditu hiri-hondakin solidoen bilketaren zerbitzua, etxeak eta eraikinak zaharberritzeko zerbitzua eta lazaretoa.

Orobat honako erakunde hauetan parte hartzen du: UNEDen Tuterako Ikastetxe Elkartuan, Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoan, Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoan (EDER) eta Espainiako "Camino de Sefarad" judutegiaren sarean.

Udalak patroiz gisa parte hartzen du honako fundazio hauetan:

- Dédalo para la sociedad de la información
- Miguel Eza
- Erruki Etxea
- Manuel de Castel-Ruiz
- María Forcada

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua taula honetan ageri direnak dira:

Udal Zerbitzuak	Udala	EEAA	Entitate publiko enpresariala	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratuak	Errenta mendua
Administrazio zerbitzu orokorrak	x					
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	x					
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	x					
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean	X					
Musika Eskola	x					
Hirigintza	x					
Lorategiak						x
Hiri-hondakinak				x		
Ur-hornidura		x				
Garraio publikoa						x
Liburutegia	x					
Ludoteka	x					
Konsumitzailearen arreta zerbitzua	x					
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	x					
Kirolak	x					x
Kirol-jardueren kudeaketa						x
Udal Kiroldegia	x					
Babestutako enplegu soziala	x					
Diru-bilketa exekutiboa						x
Familien Arreta Zentroa	x					
Laguntza juridikoa familientzat .	x					
Kultura			x			

Toki-entitateari 2010eko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutuaren Testu Bategina.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki-entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtza sortu zuena.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatera moldatzen dituenak.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.

- Udalaren 2010eko aurrekontua betetzeko oinarriak eta gainerako barne-arauak.

Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialak toki-erregimeneko araudian ezarritakoari, bere estatutuei eta indarrean dagoen merkataritza-aruari jarraitzen dio, hau da, Merkataritza Kodeari, Kapital Sozietatei buruzko Legeari eta Kontabilitatearen Plan Orokorriari.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorriari buruz dugun iritzia agertzen dugu; bosgarre-

nean, aipatutako kontuen laburpen bat gehitzen dugu. Seigarren atalean, bai Udalaren bai bere erakunde autonomoaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo. Horrez gain, Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren azterketa bat eranstean da.

Bi eranskin gehitzen dira: bat Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren urteko kontuen laburpen batekin, eta bestea, Udalak egina, 2010eko ekitaldiko kontuen memoriari dagokiona.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko, bere erakunde autonomoko eta Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialeko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko iritzia adieraztea:

a) Tuterako Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

b) Tuterako Udalak 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Tuterako Udalaren finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan Ganbera honek emandako aholkuak noraino bete diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren gomendioak, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edota osatzeko.

### III. IRISMENA

Comptos Ganberak Tuterako Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du, honako elementu nagusi hauek kontuan hartuta:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaizta, udalaren diruzaintza-gerakina, balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Kontu Orokorraren eranskinak: memoria, kontu bateratua, zorraren egoera eta interbentzio-txostena.

- Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren urteko kontuak.

Aurkezten diren kontu bateratuak Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontuekin batera aurkezten dira, eta Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren aurrekontuari buruzko informazioa jasotzen dute.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz egin da lana, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira. Prozedura horien artean laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nabarmenenak.

Komeni da zehaztea Castel Ruiz Kulturgunea erakunde autonomoa izatetik entitate publiko enpresariala izatera igarotzeak eragina izan duela Udalak 2010eko aurrekontu- eta finantza-datuen eta 2009ko ekitaldiari dagozkien artean egindako alderaketan.

Kanpoko profesionalek finantzen eta legezkontasunaren kontu-ikuskaritza bat egin dute Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren 2010eko urteko kontuei buruz, eta beren iritzia ematen dute, legezkontasunari dagokion salbuespen batekin.

### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenarekin bat, Tuterako Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

#### IV.1. 2010eko EKITALDIARI DAGOKION UDALAREN KONTU OROKORRA

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensioen bertako montepiotik eratorritako betebeharrak aktuarialak.

Tuterako Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak, arestian aipatutako salbuespenaren ondorioengatik izan ezik. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Hala ere, Comptos Ganbera honek agerian jarri nahi du Udalak gaur egungo zein etorkizuneko finantziario-beharrei erantzuteko baliabideak sortzeko duen gaitasunean ikusten den ziurtasunik eza.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, 2010eko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela esan daiteke.

#### IV.3. 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIO BATERATUA<sup>(1)</sup>.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen hasierako aurrekontu bateratua 62,4 milioikoa da.

Hasierako aurreikuspen horietan 14,8 milioiko gehikuntza garbia izan da, aurrekontuko aldaketen ondorioz, hau da, ehuneko 24ko aldaketa izan da hasierako kredituei dagokienez. Aldaketa horiek diru-sarreraren eta beren finantziarioaren atalean dute bate zere eragina.

(1) Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren informazio finantzarioa 2010eko egoera-orri bateratuetan ez gehitzeak 2009ko ekitaldiarekiko konparazio guztietan izan du eragina.

2010eko aitortutako betebeharrak bateratuak 45,8 milioi eurokoak izatera iritsi dira, eta aitortutako eskubideak, berriz, 57,4 milioi eurokoak, eta bete-tze-maila ehuneko 59 eta ehuneko 74 izan da hurrenez hurren. 2009ri dagokionez, gastuak ehuneko 12 murriztu dira eta diru-sarrerek ehuneko 6 egin dute gora, kontuan hartuz Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresariala ez dela aintzat hartu 2010eko kopuru horietan. Lehen erakunde autonomoa zen Castel Ruizen aitorturiko betebeharrak eta eskubideak 3,5 milioioak ziren 2009ko ekitaldian.

Gastu arrunt bateratuak 34,5 milioi eurokoak izan ziren guztira, eta kapitalekoak, berriz, 10,1 milioi eurokoak. Beren izaera dela-eta, gastuen kapitulu aipagarrienak langileena (gastu guztien ehuneko 36), Ondasun arrunt eta zerbitzuena (ehuneko 31) eta inbertsio errealena dira (ehuneko 22). Azken kapitulu horrek 35 milioi euroko kopurua

hartzen du aurrekontuan, eta ehuneko 28 baino ez da bete, azken ekitaldietako joerari eutsiz.

Bateraturiko diru-sarrera arruntak 36,3 milioi eurokoak dira, eta kapitalekoak, berriz, 9 milioi eurokoak. Kapituluak banatzen badugu, ehuneko 36 transferentzia arruntetatik eta kapitalen transferentzietatik dator, ehuneko 36 zerga eta tasetatik, ehuneko 21 finantza-pasiboetatik eta ehuneko 4 inbertsio errealak besterentzetik.

Finantza-eragiketek maileguak hartzetik 12,1 milioiko diru-sarrerak izan dituzte, eta 1,2 milioiko amortizazio-gastuak. Finantza-pasiboen kapitulu-an, aurrekontuan sartutako 45 milioitatik 12,1 baino ez dira aitortu.

Laburbilduz, gastatu diren 100 eurotatik honakoetarako erabili dira eta honako bidez finantzatu da bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	36	Tributu bidezko diru-sarrerak	36
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	36
Inbertsioak	22	Ondare bidezko diru-sarrerak	7
Finantza-zama	4	Zorpetzea	21
	100		100

Aurrezki gordin bateratua 2,4 milioikoa da eta aurrezki garbia 0,6 milioikoa; 2009an magnitude hauek 0,2 eta 1,7 milioiko saldo negatiboak zituzten, hurrenez hurren.

Aurrekontu-emaizta bateratu doituari, ekitaldian amaieran, 0,5 milioi euroko superabita izan da (2009an, aldiz, 2,4 milioi euroko defizita izan zen).

Guztizko diruzaintzako gerakin bateratua positiboa da, 10,3 milioi euroko kopuruaz (2009an, negatiboa izan zen 0,23 milioiz). Gastu orokorretarako gerakinak ere 3,6 milioi euroz negatiboa izaten jarraitzen du (15,8 milioi euro negatibo 2009an).

2010eko abenduaren 31ko zorpetze bateratua 45,1 milioi eurokoa zen, 12,1 milioiko mailegua kontuan hartuz, zeina 2010ean hitzartu zen eta 2011n erabili zen guztiz; zor-bolumen horrek ehuneko 32 egin du gora aurreko ekitaldiko bolumenari dagokionez (34,2 milioi). Zor bizi hori erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 124 da; ehuneko hori gaur egun zor berriak hartzeko

dagoen legezko muga (ehuneko 75) baino gorago dago. Ondorioz, 2011n Udalak ezingo du zor berririk hitzartu.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 4,9koa da, nahiz eta bere muga negatiboa ehuneko 6,5 izan; ondorioz, zor berria hartzeko ehuneko 1,6ko gaitasun ekonomikoa du.

Zor bizi horrek 9,6 milioi egingo luke gora, 2008tik 2010erako ekitaldietan abian izan diren eta amaituta dauden inbertsioak finantzatzera bideratutako mailegu formalizatu gabeak erantsiko balira. Kasu horretan, zor bizia 54,7 milioikoa izango litzateke.

2009ko aurrezki garbia negatiboa izanenez, Udalak Nafarroako Gobernuari baimena eskatu zion aipatu dugun 12,1 milioi euroko kreditu-eragiketari hitzartzeko, aurretik Saneamendu Plan bat egiteko baldintza bete ondoren; Udalbatzarrak 2010eko maiatzean onetsi zuen plan hori, eta 2010etik 2015erako indarraldia izango du.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO AHOLKUAK BETETZEA.

Ganbera honek 2009ko ekitaldiari buruz egingako txostenari dagokionez (2010eko abenduan argitaratu zen), honako aholku hauek bete dira edo ezartzeko bidean daude:

- *Diruzaintzako egoera-orrian banku-kontu guztiak kontuan hartzea.*

- *Betearazpen-oinarriak aurrekontu-kudeaketa-rako oinarrizko prozedurekin osatzea, eta Udalaren aurrekontuan eta egoera finantzarioan eragina izan dezaketen jarduera guztietarako arduradunak identifikatzea eta esleitzea.*

*Oraindik betetzeko daude, txosten honen VI. atalean errepikatzen den moduan, aholku garrantzitsu hauek, besteak beste:*

- *Aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara egokitzea eta hurbiltzea, era horretara, hurrengo ekitaldietarako aurrekontuetan ez da kreditu-gerakinen saldo handiak gehituko.*

- *Diru-laguntzak emateko plan estrategiko bat osatzea eta horretarako prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Tuterako Udalaren finantza-egoerak zaila izaten jarraitzen

du, nahiz eta 2010ean aurrekontu-magnitude nagusien balioen nolabaiteko hobekuntza izan zen, eta egoera zail horren ezaugarri nagusiak honakoak dira: gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboa (3,6 milioi) eta 45,1 milioiko zor bizia.

Eraikuntzaren sektorea nozitzen ari den krisi-egoerak, Nafarroako udalen artean banatzeko transferentzien zenbatekoari buruzko gaur egungo zalantzek eta inbertsio berrien funtzionamendugastuek finantza-egoera hori larriagotu dezakete.

Hori dela eta, eta epe ertain Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, Udalak Saneamendu Plana eguneratu behar du, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko. Hala ere ez da ahaztu behar kudeaketa hobetzeko hainbat alderdi hobetzeko neurriak hartu behar dituela, nola diren tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, langileen gastuen kontrola, diru-sarreraren lehentasuna, diru-sarrera politiken berrikuspena, zenbait zerbitzuren tamaina aztertzea, ematen dituen eta nahitaezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea.

#### V. 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoren finantza-egoera nagusiak laburbiltzen dira



## V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-MAILA

## Gastuak kapitulu ekonomikoaren arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikus- penak	Aitorturiko betebehar garbiak	Beteta- koa (%)	Ordainketak	Ordain- ketak (%)	Ordaintzeke dagoena
1 Langile-gastuak	18.067.194	18.055.272	16.300.731	% 90	16.082.235	% 99	218.497
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	17.055.109	17.323.053	14.359.819	% 83	11.824.086	% 82	2.535.732
3 Finantza-gastuak	851.130	606.913	590.990	% 97	587.930	% 99	3.060
4 Transferentzia arruntak	4.109.597	4.087.870	3.235.795	% 79	2.853.726	% 88	382.069
6 Inbertsio errealak	20.422.777	35.246.765	10.021.835	% 28	7.443.685	% 74	2.578.150
7 Kapital-transferentziak	646.400	646.400	113.485	% 18	75.883	% 67	37.602
8 Finantza-aktiboan aldaketa							
9 Finantza-pasiboan aldaketa	1.239.399	1.261.321	1.192.731	% 95	1.192.731	% 100	
Gastuak, guztira	62.391.606	77.227.594	45.815.386	% 59	4.060.276	% 87	5.755.110

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoaren arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikus- penak	Aitortutako eskubide garbiak	Beteta- koa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeke
1 Zuzeneko zergak	10.550.600	10.550.600	10.656.364	% 101	10.046.195	% 94	610.169
2 Zeharkako zergak	2.640.000	2.640.000	1.407.143	% 53	1.079.151	% 77	327.992
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.555.923	8.555.923	8.578.030	% 100	7.067.428	% 82	1.510.601
4 Transferentzia arruntak	18.110.356	18.122.356	13.946.139	% 77	13.064.908	% 94	881.231
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	1.865.550	1.865.550	1.678.696	% 90	1.591.497	% 95	87.199
6 Inbertsio errealen besterentzea	4.800.000	4.800.000	2.382.173	% 50	1.842.798	% 77	539.375
7 Kapital-transferentziak	1.635.672	8.843.533	6.651.769	% 75	6.538.637	% 98	113.132
8 Finantza-aktiboak		-23.613.147					
9 Finantza-pasiboak	14.233.505	45.462.779	12.104.658	% 27	750.000	% 6	11.354.658
Diru-sarrerak, guztira	62.391.606	77.227.594	57.404.972	% 74	41.980.614	% 73	15.424.357

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubide garbiak	57.404.972	53.963.204
- Aitortutako betebeharrak garbiak	45.815.386	52.218.782
= AURREKONTU EMAITZA	11.589.586	1.744.422
<b>DOITZEAK</b>		
- Finantzaketaren desbideratze positiboa	637.409	325.697
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa	7.582.337	22.547.414
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-18.052.282	-26.407.461
= AURREKONTU EMAITZA DOITUA	482.232	-2.441.322

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	16.028.944	9.955.738
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Oraingo ekitaldia	15.424.357	8.822.622
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	3.827.388	3.725.691
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	443.907	866.972
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-51.720	-70.635
- Bilketa zaileko eskubideak	-3.614.988	-3.388.912
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	7.897.607	11.046.680
(+) Gastuen aurrekontua: Oraingo ekitaldia	5.600.500	8.630.570
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	636.972	814.868
+ Diru-sarreraren aurrek.	103.840	80.548
+ Beste erakunde publiko batzuen baliabideetakoak	385.446	326.523
- Aplikatzeko dauden gastuak	-37.468	-37.946
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.208.317	1.232.117
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	2.164.866	860.344
+ Finantziario-desbideratze metatu negatiboak		
= DIRUZAINZTA GERAKINA, GUZTIRA	10.296.203	-230.598
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina		408.887
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	13.863.050	15.208.940
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.566.847	-15.848.425

## V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

Deskribapena	2010	2009
<b>A IBILGETUA</b>	<b>129.417.973</b>	<b>133.734.404</b>
1 Ibilgetu materiala	107.425.804	105.745.311
2 Ibilgetu ukiezina	204.914	184.860
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	4.351.608	10.248.817
4 Herri-ondasunak	17.429.156	17.548.925
5 Finantza-ibilgetua	6.491	6.491
<b>B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>		
6 Deuseztatu beharreko gastuak		
<b>C ZIRKULATZAILEA</b>	<b>21.999.421</b>	<b>19.046.013</b>
7 Izakinak	101.436	96.734
8 Zordunak	19.695.273	13.414.868
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	37.846	38.363
9 Finantza-kontuak	2.164.866	860.344
10 Finantzaketaren egoera iragankorrek, aldizkatzeak eragindako doitzeak		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		4.635.704
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>151.417.394</b>	<b>152.780.417</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2010	2009
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>91.999.827</b>	<b>101.260.553</b>
1 Ondarea eta erreserbak	24.098.847	42.766.259
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	3.839.382	
3 Kapitaleko diru-laguntzak	64.061.598	58.494.294
<b>B ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK</b>	<b>3.614.988</b>	<b>3.388.912</b>
4 Hornidurak	3.614.988	3.388.912
<b>C EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>45.945.202</b>	<b>35.007.211</b>
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	45.945.202	35.007.211
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>9.857.377</b>	<b>13.123.741</b>
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	7.935.075	11.084.626
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.922.302	2.039.115
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>151.417.394</b>	<b>152.780.417</b>

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009
3 Hasierako izakinak	96.734	97.682	3 Bukaerako izakinak	101.436	96.734
39 Izakinen balio-galtzeen hornidurak			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak	91.661	100.849	70 Salmentak	6.293.982	6.134.548
61 Langile-gastuak	14.675.489	14.645.892	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	3.523.986	3.693.376
62 Finantza-gastuak	596.773	336.417	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	9.960.298	9.574.168
63 Tributuak	269	1.018	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren arabera	1.657.246	1.706.735
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	14.130.314	16.512.750	75 Ustiapeneko diru-laguntzak		6.000
65 Gizarte-prestazioak	1.758.367	1.733.765	76 Transferentzia arruntak	14.049.820	13.365.350
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	3.235.794	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	445.962	276.962
67 Transferentzia arruntak	91.369	2.485.303	78 Bestelako diru-sarrerak	442.405	674.275
68 Kapital-transferentziak		404.898	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	14.615	71.644
69 Amortizazio eta horniduretarako ekitaldi zuzkidura	3.048.312	3.488.330	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak		
800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)			800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	1.235.332	4.207.112
GUZTIRA	37.725.082	39.806.904	GUZTIRA	37.725.082	39.806.904

## Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	1.235.332	4.207.112	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)		0
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)		0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	5.924.017	1.065
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)		0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)		0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	849.303	451.038	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa		21.381
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	3.839.382	0	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		4.635.704
GUZTIRA	5.924.017	4.658.150	GUZTIRA	5.924.017	4.658.150

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKUAK.

Ondoren, Ganbera honen iritziz kudeaketaren arlo aipagarri bakoitzean Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko litzukeen neurri-  
ei buruzko ondorio nagusiak eta aholkuak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Kontu Orokorrean aurkezten diren kontu bateratuak Udalaren eta bere erakunde autonomoaren kontuez osatzen dira, eta Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren aurrekontuaren betearazpenari buruzko informazioa jasotzen du. Entitate Publiko Enpresarial honekin ez dira kontabilitateko gainontzeko egoera-orriak bateratzen.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen du diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu behar direla zein xede eta eragin lortu nahi diren Legea aplikatzearekin, zenbat denbora behar den horiek lortzeko, ustez zenbateko kostuak izanen diren eta zein finantzabide erabiliko diren. Era berean, Legeak azpimarratzen du diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor bat onetsi beharko litzatekeela. Udalak ez du diru-laguntzetarako Plan estrategikorik ezta Ordenantza Orokorririk ere; aldiz, diru-laguntzak ordenantza espezifikoaren bidez arautzen ditu.

Udala bost fundaziotako nagusia da. Horietatik, Udalaren informazioaren arabera, honako hauek hartzen dira tokiko fundazio publikotzat:

- Dédalo para la sociedad de la información
- María Forcada

Nabarmendu beharra dago ibilgetu materialeko elementuak ustez izango duten bizitza erabilgarriaren arabera amortizatzen direla.

#### Gure aholkuak:

- *Kontu Orokorrean gehitzen diren egoera-orri bateratuak osatzea Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren informazioarekin.*

- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautuko duen plan estrategiko bat egitea eta ordenantza orokor bat onestea.*

- *Udal-organoek tokiko fundazio publikoen kudeaketari buruz erabili beharreko kontrol-mekanismoak arautzea.*

- *Udalaren kontu orokorretan udal-fundazioen urteko kontuak eranskin moduan txertatzea.*

### VI.2 LANGILEAK

Langileen atalean aitortutako betebeharrak bateratuek 16,3 milioi euro egiten dute, hau da, ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 36 eta gastu arrunten ehuneko 47. 2009. ekitaldiarekin alderatuz gero, langile-gastuak ehuneko 0,55 hazi dira.

Kapitulu honetako gastu bateratutik, Udalari 15,3 milioi euro dagozkio, eta Uren Batzarrari, berriz, 956.924 euro.

2010erako Udaleko eta haren erakunde autonomoko plantilla organikoa 2010eko martxoan onartu zen behin betiko. 341 plaza ditu eta lanpostu hutsen portzentajea ehuneko 33koa da. Gainera, plantillaz kanpo 48 langile alde baterako kontratupean daude. 2010erako enplegu-eskaintza publikoa 2010eko abuztuaren 25ean argitaratu zen eta bertan agertzen dira lanpostu huts guztiak.

2010eko abenduaren 31n, Udalean eta bere erakunde autonomoan 439 pertsonak egiten dute lan. Hona zehatz-mehatz:

Langileak	Kopurua
Funtzionarioak	187
Lan-kontratudun finkoak	37
Izendapen librea	2
Kontratu administratiboa dutenak	97
Aldi baterako lan-kontratudunak	116
Guztira	439

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Edonola ere, honakoa azpimarratu nahi dugu:

- Langileria-zerbitzuak kontularitzako zerbitzuari emandako informazioa ez da lagungarria gastu horien jarraipen eta kontziliazio egokia egiteko.

- 2009ko txostenean azaldu bezala, ez dago aparteko orduei buruzko kontrol-prozedura egokirik. Udaleko kontu-hartzaileak ere agerian jartzen du egoera hori ordainketari buruzko eragozpen-oharretan. Gai horri dagokionez, 2010ean 4.302 aparteko ordu egin ziren guztira, eta horiek ordu libreakin edo ordainsari ekonomikoen bitartez konpentsatzen dira (75.531 euro 2010ean).

Azkenik, Udalak defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatera moldatzen dituen ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea betetzen duela egiaztatu dugu. Zenbatetsitako murrizketa 229.843 eurokoa da, eta diruzaintzako gerakin negatiboa gutxitzeko asmoz aplikatu da.

*Gure aholkuak:*

- *Langileria-zerbitzuak kontabilitateko zerbitzuari igorritako informazioa hobetzea gastu horiek hobeto kontrolatu eta horien jarraipena egiteko.*

- *Baimen-, jarraipen- eta kontrol-prozedura bat ezartzea bai ordaintzen diren bai atsedeen-denborekin konpentsatzen diren aparteko orduetarako.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuek 14,4 milioi euro egin dute 2010ean, guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 31 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 42 egiten dutelarik. Gastu horien artean, Udalari 12,8 milioi dagokio eta Uren Batzarrari 1,6 milioi.

2009rekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko 14 murriztu dira.

2010ean honako kontratazio-espedienteak aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Kontratu-mota	Prozedura	Aurkeztutako eskaintza kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	2010-12-31ra arte betetako zenbatekoa
Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginez	2	464.000	380.360	12.045
Hornikuntza	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginez	3	685.397	642.286	
Hornikuntza	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginez	3	687.730	458.256	
-jantokien mistoa	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	3	255.634	217.200	6.729
Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publikitate eginez	2	3.733.570	3.285.542	731.873

Aurreko espedienteei eta erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren arabera, gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daude, modu egokian kontabilizatu dira eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu da.

#### VI.4. INBERTSIOAK

2010ean egindako inbertsioak 10 milioiko kopurura iritsi dira, eta ehuneko 28ko betetze-maila izan dute. Ehuneko hori azken ekitaldietako joeraren barruan kokatzen da, jarraian ikus daitekeen bezala:

Ekitaldia	Inbertsioen betetzea (%)
2005	26
2006	15
2007	24
2008	25
2009	34
2010	28

2009koaren aldean, inbertsio-gastuak 4,8 milioi murriztu dira, hau da, ehuneko 32.

Inbertsio-gastu horietatik Udalari 9,8 milioi dagozkio guztira.

Comptos Ganbera honek behin eta berriro gomendatu du txostenetan aurrekontuko inbertsio-

etarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen erreale-tara doitzea. Horrela, bada, 20,4 milioiko hasierako aurrekontutik, azkenean, 35,2 milioi euroko behin betiko kredituak eskuratu dira aurrekontuen aldaketan ondorioz, zehazki: aurreko ekitaldietako inbertsioetarako gerakinak gehitu direlako (11 milioi euro) eta Toki Inbertsiorako Estatu Funtsak sortutako kredituen ondorioz (2,9 milioi euro). Aitortutako betebeharrak 10 milioikoak dira, hau da, betearazpenaren ehuneko 28. Aurreko iruzkinak koadro honetan azaltzen dira:

	Zenbatekoa
Hasierako aurreikuspena	20.422.777
Aurrekontuen aldaketak	14.823.988
Behin betiko aurreikuspenak	35.246.765
Aitortutako betebeharrak	10.021.835
Betetzearen ehuneko	% 28

Saneamendu Plana aplikatzearen ondorioz, 2010ean, 6,5 milioiko inbertsioak deuseztatu ziren; kopuru hori kontuan hartuta, betearazpenari dago-kion ehuneko 35koa izango litzateke.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu dugu, bai betearazpen-prozesuan dauden obrena, bai ekitaldian amaitutako obrena, eta 2010ean esleituriko honako kontratazio-espedienteak ere aztertu dira (BEZik gabeko zenbatekoak):

	Kontratu mota	Aurkeztutako eskaintza kopurua	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	2010-12-31ra arte betetako zenbatekoa
Caparroso, Paños eta ondoko kaleak zolaberritzea.	Obrak	3	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	1.140.102	768.054	-

Oro har, kontratuei buruzko legediaren fase guztiak bete direla egiaztatu da.

#### Gure aholkuak:

- *Aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen erreale-tara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara gehitu ez daitezen.*

#### VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2010eko ekitaldiko eskubide aitortu bateratuen zenbatekoa 57,4 milioikoa izan da, Udalari 53,6 milioi dagozkiolarik guztira, eta Uren Batzarrari 3,8 milioi.

Diru-sarreraren ehuneko 74 bete da, bereziki, finantza-pasiboen (aurreikusitako 45,5 milioitatik

12,1 milioi aitortu dira guztira), jasotako transferentzien (26,96 milioitatik 20,6 milioira) eta inbertsio errealen besterentzeen (4,8 milioitatik 2,4 milioira) betetze-maila txikia izan delako.

2009. urtearen aldean, aitorturiko eskubideek ehuneko 6 egin dute gora, bereziki inbertsio errealen besterentzearen eta finantza-pasiboen ondorioz. Diru-sarrerara arruntek ehuneko 3 egin dute gora.

Diru-sarreren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2010	Aitorturiko eskubide garbiak, 2009	Aldea, ehunekotan 2010/2009
1 Zuzeneko zergak	10.656.364	10.347.340	3
2 Zeharkako zergak	1.407.143	1.210.524	16
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	8.578.030	8.295.911	3
4 Transferentzia arruntak	13.946.139	13.475.030	3
5. Ondare diru-sarrerak	1.678.696	1.979.983	-15
Diru-sarrerara arruntak (1etik 5 era)	36.266.372	35.308.788	% 3
6 Inbertsio errealen besterentzea	2.382.173	1.980	120.312
7 Kapital-transferentziak	6.651.769	7.452.436	-11
9 Finantza-pasiboak	12.104.658	11.200.000	8
Kapital diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	21.138.600	18.654.416	% 13
Diru-sarrerak, guztira	57.404.972	53.963.204	% 6

Ondorengo koadroan, udal-zerga bakoitzean aitortutako eskubideak eta 2009ko ekitaldiarekiko konparazioa agertzen dira:

Kontzeptua	2010	2009	Aldea, ehunekotan 2010/2009
Lurralde-kontribuzioa	6.929.497	6.709.010	3
Ibilgailuak	1.636.281	1.683.687	-3
Lurren balioaren igoera	445.962	276.962	61
JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA	1.623.658	1.654.634	-2
Luxu-zergak	20.966	23.047	-9
EIOZ	1.407.143	1.210.524	16
Guztira	12.063.507	11.557.864	% 9

Kontribuzioaren eta, bereziki, EIOZaren portara egokia dela ikusten da.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei

buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte ertainean kokatzen dira, hurrengo koadroan ikus daitekeen bezala:

Tributu-figura	Udala	2/1995 Foru Legea
Hirilur-kontribuzioa	0,3136	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,4-2,9	2tik 3,8ra
Karga-tasa	10,5	8 - 20
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4	2 - 5



Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

#### VI.6. GORABEHERAK

Udala eta haren erakunde autonomoa zenbait prozedura judizialean sarturik daude. Ez dakigu haren ondorio ekonomikoek Kontu Orokorretan eragin ekonomiko esanguratsurik izanen duten. Udalak emandako informazioaren arabera, 2011ko martxoan hainbat instantzien aurreko errekurtsokopurua 104 zen.

Aurkeztutako errekurtsoen artean, honakoak daude: eguzki-parke baten tentsio baxuko instalazio elektrikoa jartzeko lanen likidazioaren aurka aurkeztutakoak (obra horiek 855.250 eurokoak izan ziren), nahitaezko desjabetzei buruzko bost espedientetan balio justua finkatzearen aurkakoak (1.002.521 euro), eta urbanizazio bateko obretako likidazioaren aurkakoak (620.000 euro). Halaber, aurkeztutako errekurtsoen kopurua dela-eta, nabarmentzekoak dira telefono mugikorren konpainia batzuek aurkeztutakoak, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziaren tasari buruzko ordenantza fiskala dela-eta.

#### VI.7. HIRIGINTZA

Tuterako Udalak Lurralde Antolamenduko Arloaren eta, zehazki, Hirigintzaren Kudeaketa Zentroaren berezko balia bideekin egiten ditu hirigintzalanak. 2010eko ekitaldiko plantilla organikoan adierazitakoaren arabera, jarduera horiek gauzatzeko esleitutako langileak honakoak ziren:

- Arloko zuzendari bat.
- Arkitekto bat eta abokatu bat.
- Arkitekto tekniko bat.
- Administrazioiko eta zaintzako 6 langile

Horrez gain, Udalak 2010eko ekitaldian hainbat betebeharrak aitortu ditu ikasketetarako eta hirigintzako lan teknikoetarako kontzeptu gisa: 82.777 euro.

Tuterako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen, eta 1996an hura eguneratzea onetsi zen.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

2006ko ekitaldian esleitu zen Hiri Antolamendurako Plana, Lurralde eta Hirigintza Antolamen-

duaren Foru Legeari egokitzeko xedez. “Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua” izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onespena. Gaur egun, Nafarroako Gobernuarekin Aurretiko Hitzarmena egitearen zain dago, 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera; izan ere, Memoriak zehazten duenaren arabera, abiadura handiko linearen ibilbidea behin betiko zehaztearen menpe dago.

Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik, ez eta udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; hala ere, Udalaren Lurzoru Ondaretik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten da.

Udalaren memorian ekitaldian zehar burutu diren hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintza-jardueren lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu ahal izan dugu, oro har, egoki izapidetzen direla.

#### *Gure aholkuak:*

• *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea.*

• *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa ezartzea, indarrean den legeriak eskatzen duen dokumentazioarekin.*

• *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta.*

#### VI. 8. CASTEL RUIZ ENTITATE PUBLIKO ENPRESARIALA

2009ko maiatzaren 5ean Tuterako Udalak Castel Ruiz erakunde autonomoa entitate publiko enpresarial bihurtzea onetsi zuen. Erakunde horrek 2010eko urtarrilaren 1ean hasi zuen bere jarduera.

Erakundearen helburu orokorra kultura sustatzea da. Horretarako, Tuterako Udalaren eskumeneko kultura arloaren plangintzarako eta kudeaketarako ahalmena eman zaio.

Hauek dira erakundearen helburuak, zehatz-mehatz:

• Tuterako biztanleen behar kulturaleri erantzutea, tokiko kulturaren beraren adierazpeni eta berezitasunei berebiziko arreta eskainiz. Helburu hori betetzeko, bertako kulturari arreta berezia eskainiko dio, adierazpen guztietan, bai bere garapen eta sustapenean bai ikerketan eta ezagutzan.

- Herritarren ekimenei eta ekimen zibikoei laguntza ematea.

- Irabazi asmorik gabeko kultura-sektoreen jarduerak sustatzea eta diziplinen arteko elkarriketa bultzatzea.

- Hiriarren garapena dakarten kultura-jarduerak sustatzea.

- Kultura-sormena edo ekoizpenaren alde egitea.

- Kultura-heziketaren alde egitea.

- Ondare artistikoa, zientifikoa, teknologikoa, naturala eta dokumentala sortzea, kudeatzea eta mantentzea.

- Kultura-alorreko eta kultura-erabilerarako ekipamenduetako enpresak hirian egon daitezen sustatzea.

- Beste Administrazio batzuen titulartasuneko edo udalerriarekin partekatzen diren titulartasuneko azpiegituren sustapenean parte hartzea.

- Gizarte-kohesioan laguntzen duten kultura-ekitaldiak bultzatzea.

- Kulturaren kontzeptu sortzaile, ireki, plural eta tolerantzia sustatzea.

- Ikuskizun publikoak eta kultura-aisialdia sustatzea.

2010erako erakunde honen urteko kontuei buruz honako hau azpimarratzen dugu:

- 2010eko abenduaren 31ko balantzeak 2,6 milioiko aktiboa du guztira, eta kontusail aipagarriena ibilgetu materialak (2,1 milioi), kobratzeko dauden kontuak (144.753 euro) eta diruzaintza (323.497 euro) dira.

Pasiboari eta garbiari dagokienez, ondare garbia 2,2 milioikoa da eta epe laburrera ordaindu beharreko zor guztia 383.393 eurokoa.

- Galeren eta irabazien kontuak 2010eko abenduaren 31n 1,3 milioiko emaitza negatiboa dute. Erakundearen gastu nagusia bat dator kanpo-zerbitzuekin, 1,1 milioiko zenbatekoan. Gastu horien jatorria burutu diren kultura-jardueren ondorioz egindako gastuetan dago; 10 langileri dagozkien langile-gastuek 422.618 euro osatzen dute.

Erakundearen diru-sarreraren iturri nagusiak ustiapenerako diru-laguntzak –emaitzari eransten zaizkie (206.088 euro)– eta egindako kultura-jardueretako diru-sarrerak dira (71.291 euro).

- Kanpoko profesionalek finantzen eta legezko-tasunaren kontu-ikuskatze bat egin dute urteko kontu hauei buruz, eta hona hemen haien iritzia:

*“Gure iritziz, 2010eko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Castel Ruiz Entitate Publiko Enpresarialaren sozietatearen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2010eko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaituriko ekitaldiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.*

*2010eko ekitaldian, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Aretoaren 2010eko ekainaren 29ko 318/2010 aplikatzekoa den epaia jaso zen, zeinaren bitartez berresten den Iruñeko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiaren 2008ko urriaren 23ko 276/2008 epaia. Bertan adierazten zen 2007an Raimundo Lanas Jota Elkartearekin eta Dantzen Udal Taldearen Elkartearekin izenpetutako hitzarmenen oinarri izan zen akordioa ez zela zuzenbidearen arabera-koa.*

*Era berean, 2010eko ekitaldian hiru erakunde-ekin sinatutako beste hiru hitzarmen zeuden indarrean, eta lehenago aipatu diren kontratokat hartutako hitzarmenen antzeko ezaugarriak dituzte.*

*Gure iritziz, aurreko paragrafoetan adierazia salbu, Castel Ruiz Udal Entitate Publiko Enpresarialak zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian izan duen jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duen legezko arautegia”.*

Legezko-tasunari dagokion salbuespen horrek erakunde autonomoak hitzarmen bidezko diru-laguntza zuzen gisa izapidetutako kultura-erakunde-ekin hitzarmen batzuei egiten die erreferentzia, eta Auzitegi Gorenak, gaia kontuan hartuta eta ordaina dagoenez, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea aplikatu beharko litzatekeela adierazten du. Gaur egun, kontratazio-prozedura egokia erregularizatu da.

José Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko abenduaren 21ean.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**1. ERANSKINA: CASTEL RUIZ ENTITATE PUBLIKO ENPRESARIALAREN URTEKO KONTUEN LABURPENA, 2010**

Egoera-balantzea

## AKTIBOA

Deskribapena	2010
A AKTOBO EZ ARRUNTA	2.130.991,12
1 Ibilgetu ukiezina	5.759,75
5 Aplikazio informatikoak	5.759,75
1 Ibilgetu materiala	2.125.231,37
1 Lursailak eta eraikuntzak	1.781.431,30
2 Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.	343.800,07
B AKTIBO ARRUNTA	468.249,43
III Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	144.752,52
1 Zordunak	143.616,56
4 Langileak	1.135,96
VII Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	323.496,91
1 Diruzaintza	323.496,91
AKTIBOA, GUZTIRA	2.599.240,55

## PASIBOA

Deskribapena	2010
A ONDARE GARBIA	2.215.848,01
A.1 Funts berekiak	373.051,59
I Ondarea	375.536,47
1. Ondarea	375.536,47
IV Bazkideen bestelako ekarpenak	1.325.250,00
V Ekitaldiaren emaitza	-1.327.734,88
A.3 Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	1.842.796,42
C PASIBO ARRUNTA	383.392,54
V Epe laburreko zorrak	23.727,45
6. Beste finantza-pasibo batzuk	23.727,45
VII Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	359.665,09
3. Hainbat hartzekodun	321.997,77
6. Administrazio Publikoekiko beste zor batzuk	37.667,32
PASIBOA, GUZTIRA	2.599.240,55

## GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA.

Deskribapena	2010
<b>A ERAGIKETA JARRAIKIAK</b>	
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	71.291,34
a) Salmentak	71.291,34
5 Bestelako ustiatze diru-sarrerak	206.088,03
b) Ekitaldiko emaitzari gehitutako ustiatze diru-laguntzak	206.088,03
6 Langile-gastuak	-422.618,42
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-330.805,94
b) Gizarte zamak	-91.812,48
8 Bestelako ustiatze-gastuak	-
a) Kanpoko zerbitzuak	1.103.835,60
b)Tributuak	-
b)Tributuak	-3.213,71
9 Ibilgetuaren amortizazioa	-78.724,50
A.1) USTIAPENENKO EMAITZA	-
	1.327.799,15
13 Finantza diru-sarrerak	64,27
b) Balore negoziagarrienak eta bestelako finantza-tresnenak	64,27
b.2) Beste batzuenak	64,27
A.2) FINANTZA-EMAITZA	64,27
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	-
	1.327.734,88
A.4) ERAGIKETA JARRAIKIJATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	-
	1.327.734,88
A.5) EKITALDIAREN EMAITZA	-
	1.327.734,88

## A) 2010eko ABENDUAREN 31n BUKATUTAKO EKITALDIEI DAGOZKIEN AITORTURIKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA.

	2010
A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza	-1.327.734,88
Zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak	
III Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	1.842.796,42
B) Zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	1.842.796,42
Galeren eta irabazien kontura egindako transferentziak	
VII Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	0,00
C) Galeraren eta irabazien kontura egindako transferentziak, guztira	0,00
AITORTURIKO DIRU-SARRERA ETA GASTUAK, GUZTIRA	515.061,54

## B) 2010EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE GARBIAZ IZANDAKO ALDAKETAK.

	Ondarea	Bazkideen ekarpenak	Emaitza	Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak	Guztira
A) SALDOA 2009/12/31n	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
I. Aitorturiko diru-sarrera eta gastuak	0,00	0,00	-1.327.734,88	1.842.796,42	515.061,54
7. Bestelako eragiketarak bazkide edo jabeekin	375.536,47	1.325.250,00	0,00	0,00	1.700.786,47
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
B) SALDOA 2010/12/31n	375.536,47	1.325.250,00	-1.327.734,88	1.842.796,42	2.215.848,01

## Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiri buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (22. or.).
- II. Xedea (25. or.).
- III. Norainokoa (25. or.).
- IV. Iritzia (25. or.).
  - IV.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko ekitaldiko kontu orokorra (26. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (26. or.).
  - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera finantzarioa (26. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan emandako aholkuen jarraipena (27. or.).
- V. 2010eko kontu orokorraren laburpena (29. or.).
  - V.1. Aurrekontu bateratua betetzearen egoerorra (29. or.).

V.2. Aurrekontuaren emaitza bateratua (30. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakin bateratua (30. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (31. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (32. or.).

**VI.** Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (33. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (33. or.).

VI.2. Langileak (33. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (35. or.).

VI.4. Inbertsioak (36. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (36. or.).

VI.6. Gorabeherak (38. or.).

VI.7. Hirigintza (38. or.).

Eranskina. 2010eko ekitaldiko finantza-egoera bateratuen memoria.

(Oharra: Aipatutako eranskinak Ganberaren Zerbitzu Orokorraren bulegoetan eta honako webgune honetan eskura ditzakete foru parlamentariak:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos))

### I. SARRERA

Comptos Ganberak, 2011ko ekitaldiko jarduketa-programari jarraituz, Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko Kontu Orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du. Hauek dira aipatutako erakunde autonomoak Ardoi Kirol Patronatua, Kultura Patronatua eta Musika Patronatua.

2010eko urtarrilaren batean udal horrek 3.316 biztanle zituen.

Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen datu ekonomiko nagusiak honakoak ziren 2010eko ekitaldiaren amaieran:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 31-12-2010
Udala	19.140.063,53	12.232.941,44	122
Ardoi Kirol Patronatua	552.775,12	591.381,10	0
Kultur Patronatua	502.646,50	544.502,37	0
Musika Patronatua	487.273,14	479.341,36	13
Bateratzearen doitzeak	(758.337,48)	(758.337,48)	
Guztira	19.924.420,81	13.089.828,79	135

**Oharra:** 2010eko abenduaren 31ko langileei buruzko zenbakietan sartuta daude enplegu sozialaren bidez diharduten 3 langile, Enplegu Komunitario bidezko 6 eta Kontziliazio bidezko 4.

Udalak bere Erakunde Autonomoei transferentzia arrunten bidez egindako ekarpenak 758.338 eurokoak izan dira, era honetara eginda:

EEAA	Udalaren ekarpena 2010ean
Kirol Patronatua	242.400
Kultur Patronatua	330.942
Musika-eskola	184.996

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko

hiri-garraiokoak, eskualdeko taxi-zerbitzua eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Udalari mankomunitate horretan parte hartzeak honako kostu hau eragin dio:

Zerbitzuak	Gastuak Udalarentzat, 2010ean
Eskualdeko hiri-garraioa	203.588
Eskualdeko ibai-parkearen kudeaketa	52.880
Guztira	256.468

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Udal-zerbitzuak	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Alokairua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Berdintasun-zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu- eta garapen-zerbitzuak	X				
Kirol arloa	X	X			
Kultura	X	X			
Musika Eskola		X			
Hirigintza	X			X	
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri Hondakinak			X		
Garraio Publikoa			X		
Haur Hezkuntzako Zentroaren Zerbitzua 0-3	X			X	
Kultura-etxearen Kudeaketa	X			X	
Udal eraikinen garbiketa eta mantentze-lanak				X	
Bide-garbiketa				X	
Kirol-instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol-instalazioetako Taberna-Jatetxearen Kudeaketa					X
Udal Ludoteka	X			X	
Kulturetxeko Taberna-Kafetegiaeren Kudeaketa					X
Gazteen Lokala-Gaztetxearen kudeaketa	X			X	
Udako hiri-kanpalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Toki-entitateari aplika dakioken erregimen juridikoa honako hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatera moldatzen dituena.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- Legegintzako 251/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura diharduten Langileen Estatutuari buruzkoa.

• Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki-entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.

- 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea (LFOTU).
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Toki Iraungarritasunerako Estatu-ko Funtsa sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontularitzaren eta aurrekontuen arloan, 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak, zeinak Nafarroako toki-administrazioarako aurre-



kontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak diren.

- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Kontu Orokorrari buruzko gure iritzia. Bosgarren atalean jaso ditugu Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratu nagusiak. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak bilzen dira, arloz arlo. Horrez gainera, eranskin bat sartu da, Udalak 2010eko ekitaldiko kontuei buruz egindako memoriarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. XEDEA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren araukotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztiei dagokienez, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

b) Zizur Nagusiko Udalak eta haren erakunde autonomoek 2010ean aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Entitatearen egoera finantzarioa, 2010eko abenduaren 31n.

d) Aurreko txostenetan emandako gomendioen betetze-maila.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, udalak eta haren erakunde autonomoek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren araukotasunari buruzko fiskalizazioa egin du, funtsean honakoak osatua:

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen kontua: aurrekontuaren likidazioa, aurrekontuaren emaitza, diruzaintza-gerakina, egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Kontu Orokorraren eranskinak: oroitidazkia, Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratua, zorraren egoera eta kontu-hartzailtzaren txostena.

2010ean aplikatutako aurrekontua 2009koaren luzapen bat da, eta hura, aldi berean, 2008koaren luzapena izan zen.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz. Lanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaketa-probak eta prozedura tekniko guztiak bildu dira. Prozedura horien artean, laginen teknika edo kontusailen edo eragiketa zehatzen azterketa selektiboa erabili dira.

Zehazki, Udalarari eta haren erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion alderdi nagusiak.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiarena ere, udalarena da eta txosten honen V. atalean azaltzen da, labur-labur.

Gure lanetik, honako ondorio hauek atera ditugu:

#### IV.1. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2010EKO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, Udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomikoa eta finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	24	Tributu bidezko diru-sarrerak	45
Bestelako gastu arruntak	30	Transferentziak	52
Inbertsioak	46	Ondare bidezko diru-sarrerak	3
	100		100

Sailkapen funtzionalaren arabera, sei zerbitzuek<sup>(1)</sup> kontsumitzen dute Udalaren gastu arruntan ehuneko 52: kirol-instalazioek ehuneko 14, udaltzaingoak ehuneko 13, eskolek edo ikastetxeek ehuneko 8, lorategiek, parkeek eta eremu berdeek ehuneko 7, haurtzaindegiak - haur eskolek ehuneko 5 eta kaleen eta bideen mantentze-lanek ehuneko 5.

2009arekin konparatuz gero, gastuak ehuneko 44 handitu dira, eta diru-sarrerak ehuneko 4 jaitsi dira. Izaerari erreparatuz gero, gastu arruntak ia maila berean gelditu dira; diru-sarrera arruntak ehuneko 5 igo dira, bereziki transferentziak eta udal-zergak igo direlako.

#### IV.3. 2010EKO ABENDUAREN 31KO EGOERA FINANTZARIOA

2010ean osoko bilkurak ez zuen aurrekontua onartu, eta, ondorioz, aurreko urtekoa luzatu zen, hasierako gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak 10,7 eta 16,8 milioioak zirelarik, hurrenez hurren.

Behin betiko aurrekontua 28,9 milioioa izan zen diru-sarrerei dagokienez eta 22,8 milioioa gastuei dagokienez, hasierako maileguez 12,1 milioio aldaketak izan ondoren, inbertsioekin eta diruzaintzako gerakinarekin zerikusia zuten kontusailak txertatzearen ondoriozkoak batez ere.

Ekitaldian aitorturiko betebeharrak 19,9 milioi eurokoak izan dira (13,9 milioi euro 2009an), eta aitortutako eskubideak, berriz, 13,1 milioi eurokoak (13,6 milioi euro 2009an).

Behin betiko aurreikuspen horien betearazpen-mailari dagokionez, gastuetan ehuneko 87koa izan da eta diru-sarreretan ehuneko 45ekoa. Aurrekontuaren hurrenez hurrengo luzapenek indargabetu egin dute betearazpen-maila hori, bereziki diru-sarreraren atalean.

Gastutatako 100 euro bakoitza honakoetarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da:

Kapital-gastuei dagokienez, ehuneko 195eko igoera izan dute, 2010ean inbertitzeko egindako ahalegin handiaren ondorioz; kapitalaren diru-sarrerak, aldiz, ehuneko 36 egin dute behera. Horren ondorioz, eragiketa horietan 7,2 milioio defizita izan da.

Aurrekontu-emaitza doituak 3,88 milioi euroko defizita du ekitaldiaren itxieran, kapital-eragiketek eragindako defizitak sortua, aurrekontuan aurreikusitako maileguak ez baitira adostu. Emaitza horrek, 2009an, 231.658 euroko superabitekoa izan zuen.

(1) Toki Administrazioiko Departamentuak toki-erakundeek herritarrei ematen dieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko osatutako aplikazio informatikoaren bitartez lortutako datuen arabera.

Aurrezki gordina zein garbia, 2010ean, positiboak dira (390.539 euro), eta hobetu egin dira 2009ko balioak (120.799 euro negatiboa).

Diruzaintza-gerakina, guztira, 26,3 milioi eurora iristen da, eta 2009an 33,1 milioi eurokoa izan zen. Gastu arruntetarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko gaitasuna neurtzen duen adierazlea 1,2 milioi da positiboa, nahiz eta nabarmen gutxitu den 2009koen aldean, orduan magnitude hori 5,7 milioiko balioa baitzuen; murrizpen hori inbertsio-eragiketarako finantzatzeko premiak eragina da, funtsean.

	2007	2008	2009	2010
Zorpetze-maila (%)	0	0	0	0
Zorpetze-muga (%)	39,64	16,80	- 1,14	3,49
Zorpetze-ahalmena (%)	39,64	16,80	- 1,14	3,49
Gastu arruntak/bizt.	648	750	806	811
Tributu bidezko diru-sarrerak/bizt.	687	414	401	444

Datu horien arabera, Udalak 2010ean zorpetzeko gaitasuna duela adierazten du berriro ere, nahiz eta ez den 2007ko eta 2008ko balioetara iristen, urte horietan baliabide handiak lortu baitzuten hirigintzako eragiketei esker. Biztanleko gastu arruntak ehuneko 26 handitu dira epe horretan; aitzitik, tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 35 egin dute behera, eraikuntzaren sektoreko diru-sarrerak murriztu direlako, funtsean.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO AHOLKUEN JARRAIPENA

Zizur Nagusiko Udalari buruzko aurreko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldiari zegokiona, 2011ko martxoan argitaratu zen. Txosten horri dagokionez, garrantziko gomendio hau bete egin dela edo betetzeko fasean dagoela adierazten dugu:

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa onartzea, irizpide eta premia errealei erantzunez.*

- *Urtez urte onartzea Udalaren aurrekontua.*

*Besteak beste garrantziko aholku hauek bete gabe jarraitzen dute, txosten honetako VI. atalean azaltzen den bezala:*

- *Udal-inbentarioa eguneratzea eta onestea.*

- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa sortzea.*

Ez dago epe luzeko zorrik 2010eko abenduaren 31n.

Balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak, abenduaren 31n, 25,99 milioira iristen dira; zenbateko hori 33,3 milioikoa izan zen 2009an.

Udalaren finantza-egoera egoki baloratzeko, beharrezkoa da garrantziko zenbait adierazlek azken urteetan izan duten bilakaera aztertzea:

- *Patronatuak udal-zerbitzu bihurtzeko aukerak aztertzea.*

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Udalaren egoera finantzarioa ona da, azken urteetan udal-eremuan egindako hirigintzako jarduera handiekin lortutako diru-sarreren ondorioz bereziki. Ez du epe luzeko zorrik.

2010eko ekitaldian, diru-sarrera arruntak aski izan dira zerbitzuetarako gastu arruntak finantzatzeko; inbertsio-eragiketen parte handi bat, aldiz, diruzaintza-gerakinarekin finantzatu da. Horrek azaltzen du gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina ehuneko 79 murriztu izana.

Azken hiru urteetan, udalbatzak ez ditu aurrekontuak onartu, eta horrek zaildu egin du Udalaren kudeaketarako gaitasuna, ez baitzuten administrazio publiko guztietan oinarritzkoa den agiria.

Eraikuntzaren sektorean eta ekonomian oro har sortutako krisi-egoerak, Nafarroako udalen artean banatzeko transferentzia-bolumenari buruz gaur egun dagoen ziurtasunik ezak eta lurraldean kokatuko den biztanleria berrientzako zerbitzuen prestazioa igotzeak eragina izan dezake egoera finantzario horretan. Horregatik, uste dugu Udalak plan ekonomiko-finantzario bat onartu behar duela, gastu arruntei eusteko eta ohiko baliabideak sortzeko gaitasuna handitzeko aukera emango diona; baina hori guztia ahaztu gabe kudeaketa hobetzeko neurriak, besteak beste honako alderdi hauetan: tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura

egokitzea, inbertsioak lehenestea, diru-laguntzen politika berraztertzea, zenbait zerbitzuren neurria aztertzea eta derrigorrezkoak izan gabe emandako zerbitzuek beren burua finantzatzea.

**V. 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTU BATERATUA BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

## 2010eko ekitaldia

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordaindua	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guzt. gain. (%)
Langileria-gastuak	4.662.859	527.820	5.190.679	4.818.854	4.709.562	109.292	% 93	% 24
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	5.523.168	373.433	5.896.601	5.512.062	4.943.430	568.632	% 93	% 28
Gastu finantzarioak	720	67.000	67.720	0	0	0	% 0	% 0
Transferentzia arruntak	499.183	60.000	559.183	466.269	365.714	100.554	% 83	% 2
Inbertsio errealak	0	11.065.670	11.065.670	9.119.836	8.839.828	280.009	% 82	% 46
Finantza-aktiboak	0	54.000	54.000	7.400	7.400	0	% 14	% 0
Gastuak, guztira	10.685.930	12.147.923	22.833.853	19.924.421	18.865.934	1.058.487	% 87	% 100

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobratua	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guzt. gain. (%)
Zuzeneko zergak	2.483.900	0	2.483.900	3.010.842	2.895.805	115.037	% 121	% 23
Zeharkako zergak	2.000.000	0	2.000.000	286.946	281.337	5.609	% 14	% 2
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.470.849	0	2.470.849	2.607.964	2.522.127	85.837	% 106	% 20
Transferentzia arruntak	4.215.409	164.441	4.379.850	4.932.147	4.633.756	298.391	% 113	% 38
Ondare bidezko diru-sarrerak	1.069.364	0	1.069.364	349.825	347.978	1.847	% 33	% 3
Kapital-transferentziak	4.503.450	1.650.721	6.154.171	1.881.198	1.255.900	625.298	% 31	% 14
Finantza-aktiboak	54.000	4.237.311	4.291.311	20.907	20.907	0	% 0	% 0
Finantza-pasiboak	0	6.035.235	6.035.235	0	0	0	% 0	% 0
Diru-sarrerak, guztira	16.796.972	12.087.708	28.884.680	13.089.829	11.957.810	1.132.019	% 45	% 100

## V.2. AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2010	2009
+ Aitorturiko eskubide garbiak	13.089.829	13.585.465
- Aitorturiko betebeharrak	19.924.421	13.872.215
= Aurrekontu-emaizta	-6.834.592	-286.750
<b>DOITZEAK</b>		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	23.737	271.492
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	1.619.030	40.433
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	1.355.376	749.466
= Aurrekontu-emaizta doitua	-3.883.923	231.657

## V.3. DIRUZAINZA-GERAKIN BATERATUA

Kontzeptua	2010	2009
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.405.845	1.539.569
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.132.019	1.437.704
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	516.515	389.634
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	258.537	65.040
(+) Ordainketen itzulketak	0	0
(-) Biltzen zailak diren eskubideak	-401.341	310.002
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-99.885	42.807
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.286.376	1.711.617
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.058.487	1.504.948
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	441	4.563
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	227.448	202.106
(+) Diruzaintzako funts likidoak	25.977.945	33.270.950
(+) Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	242.484	22.329
= Diruzaintzako gerakina, guztira	26.339.898	33.121.231
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	79.311	1.455.856
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	25.069.739	25.938.288
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.190.848	5.727.087

## V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## Aktiboa

Deskribapena	2010	2009
<b>IBILGETUA</b>	<b>70.770.567</b>	<b>63.488.947</b>
Ibilgetu materiala	26.557.792	20.764.749
Ibilgetu ez-materiala	437.888	419.666
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	43.772.906	42.302.551
Herri-ondasunak	0	0
Finantza-ibilgetua	1981	1981
<b>ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Kitatzeko gastuak	0	0
<b>IBILKORRA</b>	<b>27.901.977</b>	<b>35.192.043</b>
Izakinak	0	0
Zordunak	1.907.070	1.892.379
Finantza-kontuak	25.994.907	33.299.664
Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doikuntzak	0	0
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	0	8.980
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>98.672.544</b>	<b>98.689.970</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2010	2009
<b>FUNTS BEREKIAK</b>	<b>80.043.279</b>	<b>81.554.452</b>
Ondarea eta erreserbak	79.707.257	81.051.903
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	336.472	502.549
Kapitaleko diru-laguntzak	17.242.554	15.381.093
<b>ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Hornidurak	0	0
<b>EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	0	0
<b>EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.386.261</b>	<b>1.754.425</b>
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.286.377	1.711.618
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	99.884	42.807
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>98.672.544</b>	<b>98.689.970</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arrunta

ZOR			HARTZEKO		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	2.115.402	2.160.076
61 Langile-gastuak	4.919.515	4.846.119	71 71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	733.061	1.049.338
62 Gastu finantzarioak	0	32	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.242.029	1.668.823
63 Tributuak	0	0	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren gainekoak	603.386	605.733
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo-zerbitzuak.	5.411.400	4.985.349	75. Ustiapeneko diru- laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	4.932.147	4.575.991
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	452.373	399.472
67 Transferentzia arruntak	466.269	920.690	78 Bestelako diru- sarrerak	129.064	808.181
68 Kapitaleko transferentziak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	0	0			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	410.278	515.424	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	11.207.462	11.267.614	GUZTIRA	11.207.462	11.267.614

## Ekitaldiari dagozkion emaitzak

ZOR			HARTZEKO		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	410.278	515.424
82 Ekitaldiko ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	9.357
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	73.806	31.212	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	336.472	493.569	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	410.278	524.781	GUZTIRA	410.278	524.781



#### IV. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetarako gure aburuz Udalak bete behar dituen aholku nagusiak, antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

##### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Udalak 2010eko ekitaldirako aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatu du, eta hura, aldi berean, 2008ko aurrekontuaren luzapena zen.

Luzapen horren ondoriozko aldaketa gehienak inbertsio errealean atalari dagozkio: hasierako aurrekontuan zero euroko zenbatekotik abiatuta behin betiko aurrekontuan 11,1 milioi eurora iritsi zen eta diruzaintza-gerakinarekin eta kapital-transferentziarekin finantzatu ziren.

Kirol eta Kultura Patronatuek Udaleko langileen eta instalazioen bitartez ematen dituzte beren zerbitzuak; Musikako Patronatuak bertako langileak ditu, eta udal-instalazioetan egiten ditu bere jarduerak.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak ezartzen du, diru-laguntzak eman aurretik, toki-korporazioek aurrekontuaren betetze-oinarrien esparruan onetsi beharko dituztela diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak, dela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bitartez, dela diru-laguntzen modalitate bakoitzerako berariazko ordenantza baten bitartez. Bestalde, bertako 8. artikuluan adierazten du diru-laguntzen plan estrategiko batean nahitaez zehaztu behar direla horren bitartez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak, dena den, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen baldintzapean. Udalak ez du ez Ordenantza Orokorrak ez diru-laguntzen Plan estrategikorik; edonola ere, diru-laguntzak ordenantza berezien bitartez arautzen ditu.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Gure aholkuak:

- Urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, legedian aurreikusitako epearen barruan, udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.

- Patronatuak udal-zerbitzu deszentralizatuak bihurtzeko aukerak aztertzea.

- Diru-laguntzen plan estrategiko bat osatzea, eta bertan zehaztea helburuak, ondorioak, aurreikusitako kostuak, baliabideak, eragina, etab.

- Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.

- Udal-ondasunak (jabari publikokoak, ondarezoak eta herri-ondasunak) eskritoretan jasotzea eta erregistratzeko prozesua burutzea.

- Udal-inbentarioa eguneratzea eta onartzea, eta inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko; horretarako, berezirik idatzi behar dira lurzorua udal-ondareari dagozkion ondasunak.

##### VI.2. LANGILEAK

Langileen kapituluaren aitortutako betebeharrak bateratuak 4,8 milioioak dira, eta gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 24 osatzen dute, eta gastu arruntaren ehuneko 45.

2009ko ekitaldiaren antzera, gastu guztiaren ehuneko 90 Udalarari dagokio eta ehuneko 10 Musika Patronatuari.

2009ko ekitaldiarekin alderatuta, Udalaren gastua ehuneko 1 igo da, eta honela banatzen dira gastuak, artikuluko ekonomikoaren arabera:

	2010ean aitortutako betebeharrak	2009an aitortutako betebeharrak	Aldea (%) 2010/2009
10 Goi-karguak	42.760	44.955	-5
12 Langile funtzionarioak	2.585.841	2.549.646	1
12 Lan kontratupeko langileak	622.187	506.067	23
16 Kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.092.926	1.182.889	-8
Guztira	4.343.713	4.283.557	% 1

Goi-karguen ordainsarien barruan Alkateak jasotako kopuruak eta udalbatza osoaren istripu-asegurua sartzen dira.

Lan kontratupeko gastuak gora egin du aldi baterako langileen kontratazioa gehitu delako (enplegu-tailerra, herri-enpleguaren programa eta gizarte-enpleguarena).

Udalaren osoko bilkurak ez zuen akordiorik lortu plantilla organikoa onartzeko 2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietan; beraz, 2007ko ekitaldian onartu eta indarrean den plantilla organikoaren –2008ko maiatzean aldatua– eta abenduaren

31ko lanpostuen egoera errealaren arteko aldea ekitaldiz ekitaldi handitzen joan da. Osoko bilkurak 2011ko ekitaldirako plantilla organiko berriaren onespenuk zuzendu egin du, maila handi batean, aipatutako alde hori.

2010ean indarrean den plantilla organiko horrek 92 lanpostu ditu guztira.

2010eko abenduaren 31n, 135 lagunek Udalen lan egiten dute, horietatik 122 Udalarenak dira eta 13 Musika Patronatuarenak, era honetara banatuta:

Langileak	Kopurua
Udalbatzarkideak	1
Funtzionarioak	66
Lan-kontratu finkokoak	20
Izendapen askekoak	1
Administrazio kontratudunak	2
Aldi baterako lan kontratudunak	45
Guztira	135

2009ko ekitaldiarekin alderatuta ez da aldaketa nabarmenik izan, aldi baterako bost lanpostu gehiago daudela izan ezik.

Plantillan aurreikusitako lanpostuen eta abenduaren 31n lan egiten duten langileen arteko aldearen oinarria, plantillaren beraren hutsunez gainera, bertan kontuan hartu ez diren lanpostuak dira, hain zuzen ere, gizarte-enplegutik etorritako aldi baterako kontratazioak, zereginen pilaketa, ordezkapenak, etab.

2010ean ez da kontratazio-prozesu berririk abian jarri, Udaleko langile finakoak lekualdatzeko lehiaketa bat izan ezik administrazioko bulegari laguntzaile baten lanpostu hutsa betetzeko.

Aipatutako txostenaren eta 2010eko ekitaldiko langileria-gastuen lagin bat aztertu ondoren ikusi da, oro har, behar bezala betetzen dela indarrean den araudia, behar bezala kontabilizatuta daudela, ordaindutako lansariak betetako lanposturako ezarritakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. Edonola ere, beti ez da kontratu-modalitate egokia hautatu plantillan bete gabeko lanpostuak aldi baterako betetzeko.

Azkenik, Udalak ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea bete duela egiaztatu dugu, zeinaren arabera egoitzen diren Nafarroako Foru Komunitatera defizit publikoa murrizteko neurri bereziak. Udaleko langileen gastuen murrizketa 2010eko ekitaldian honako izan da zehatz-mehatz:

Udaleko langileen gastuen murrizketa	Zenbatekoa
Enplegatuak	55.174
Udalbatzarkideak	1.479
Guztira	56.653

2009ko diruzaintza-gerakina positiboa zenez eta Udalak ez duenez epe luzeko zorrik, hurrengo ekitaldietako inbertsioak finantzatzea izango da funts horien (funts atxikiak) helburua.

Musika Patronatuan 2010eko ekainaz geroztik –nahiz eta udalaren barneko kontrol-organoak horri buruko txostenak egin zituzten– ez zen aipatutako ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea aplikatu. Ondorioz, 2010ean bertako langileen soldatak ez ziren legeak adierazitako moduan murriztu. Edonola ere, Musika Eskolako Patronatuko Batzordeak, 2011ko urriaren 5eko bileran onartu zuen 2011ko urriaz geroztik dagokion murrizketa egitea eta data horren aurretik jasotako diru-kopuruak itzultzeko formula bat bilatzea. 2011ko abenduaren 20an aipatutako Batzordeak murrizketa hori 2012ko lansarrietan modu proportzionalean aplikatzea onartu zuen.

*Gure aholkuak:*

- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

- *Plantilla organikoan bete gabe dauden lanpostuak betetzeko kontratu-mota egokiak erabiltzea.*

- *2010eko soldatak murrizteko neurriak Musika Eskolako langile guztiei behin betiko aplikatzea, 12/2010 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera, eta aurrezki horiek araudi horretan aurreikusten diren helburuetarako erabiltzea.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Kapitulu horretan aitorturiko betebeharrak 5,5 milioi eurokoak dira; alegia, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 28 eta gastu arruntaren ehuneko 51. 2009ko ekitaldiari buruz izan den igoera ehuneko 8koa izan da.

Gastu horien ehuneko 85 Udalari dagokio (4,71 milioi), ehuneko 8 Kultura Patronatuari (466.364), ehuneko 6 Kirol Patronatuari (325.065 euro) eta gainerako 11.429 euroak Musika Patronatuari.

2010ean lizitatutako txostenetatik honako hauek aztertu ditugu (BEZa kanpo):

Deskribapena	Mota	Prozedura	Eskaintzak egin dituztenak	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	2010ean erabilitako zenbatekoa
Lorezaintza iraunkorra Ardoi Sektorea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1	138.000	135.984	45.328
Errenieta eta Catalina de Foix ikastetxeen garbiketa	Laguntza	Irekia, Europar Batasunean publizitatearekin	5	151.675	148.601	-
Autobus-zerbitzu. Kirol Patronatua	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	3	25.000	25.000	23.507

Egindako azterketaren ondoren, Udalak kontratazioaren alorrean indarrean den araudia zentzuz betetzen duela ondorioztatzen da.

Atal horretan erregistratutako gastuen lagin bat aztertu ondoren egiaztatu ahal izan dugu dagozkien fakturekin justifikatu direla eta behar bezala

kontabilizatu direla. Lortutako emaitzen arabera adierazten dugu:

- Zenbait gastu errepikari halako zenbatekora iritsi dira urte amaieran, non dagokion kontratazio espedienteak abiarazi beharko bailitzateke, nahiz eta gertaera hori ezin den beti modu arrazoituan aurreikusi.

*Gure aholkuak:*

- *Urteko gastuen bolumena aurretik kalkulatu daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-txostenak izapidetzea.*

## VI.4. INBERTSIOAK

Aurrekontuko inbertsioen kapituluaren ehuneko 82 bete da, hau da, 9,12 milioi euro guztira. Gastu horrek ekitaldian aitortutako betebeharren ehuneko 46 osatzen du.

2009. urtearekin alderatuta, ehuneko 195eko igoera izan dute, arrazoi hauengatik: Ardoi Sektorako azpiestazio elektrikoagatik aitortutako betebeharrak, horniduretarako erabiltzeko lokalak erosi izana eta lan gehiago egin direlako –bereziki ikastetxearen esparrua berriro urbanizatu eta kirol instalazioak berri, biak 2009an hasiak, eta belar artifizialeko futbol-zelaia eraiki eta kiroldegietako pistak estali (2010ean hasiak).

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta ondo kontratazio-espeditenteak aztertu dira (BEZa gabeko zenbatekoak):

Kapitulu ekonomikoak	Mota	Prozedura	Eskaintzak egin dituztenak	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	2010ean erabilitako zenbatekoa
Musika-eskola handitzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti eta presazko izapidetzea	10	459.386	348.962	395.064
Belar artifizialeko futbol-zelaia El Pinar II	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti eta presazko izapidetzea	13	780.767	546.537	765.622
Kiroldegiko bi pisten estaldura	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	11	752.560	517.863	487.674

Futbol-zelaiaren lanetan, enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa ausartegia zen; txostenean udal-zerbitzu teknikoaren txosten bat zein enpresaren beraren baieztapen bat agertzen da, eskaintako zenbatekoaren arrazoizkotasuna bermatuz.

Esleipenaren zenbatekoari dagokionez betetakoaren desbiderapenak, aztertutako hiru kasuetan, hasierako proiektuan egindako aldaketan ondoriozkoak izan ziren; aldaketa horiek zegokion frogagiriaren bitartez izapidetu ziren.

Egindako azterketaren ondoren, Udalak kontratazioaren alorrean indarrean den araudia zentzuz betetzen duela ondorioztatzen da.

Horrez gainera, 2010eko ekitaldian amaitutako zenbait lanen esleipenaren zenbatekoaren eta guztira aitortutako gastuaren artean sortutako desbideraketen jarraipena egin da, eta ez da araubidea betetzen ez dela aditzera ematen duen zantzurik hauteman desbideraketa horien kudeaketari dagokionez.

## VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2010eko ekitaldian aitorturiko eskubideak 13,8 eurokoak izan dira; horietatik ehuneko 85 eragiketa arrunteei dagozkie, eta gainontzekoa, ehuneko 15, kapital-eragiketei eta finantza-eragiketei.

Aurrekontuaren ondoz ondoko luzapenek indargabetu egin dute diru-sarreraren betearazpen-maila, 2010ean ehuneko 45ekoa zena; horri dagokionez, honako betearazpen-ehuneko hauek azpimarratzen ditugu:

- Zeharkako zergak –EIOZ–, ehuneko 14ko betearazpenarekin, aurrekontuko zenbatekoak 2008ko berberak izateagatik; garai horretan Ardoi sektorea handitzen ari zen eta EOIZaren bidez kopuru handiak biltzen ziren.

- Transferentzia arruntak, ehuneko 113, tributuen parte-hartzearen zenbatekoak gora egin duela eta aurrekontuan Enpleguaren eta Iraunkortasunaren Estatuko Funtzari dagozkion diru-sarrerak ez direlako sartu.

• Kapital-transferentziak –ehuneko 31ko beteazpena–, Ardoi sektorea urbanizatzeagatik kuenten bidezko 4,4 milioi euroko diru-sarrerak aurrekontuan sartuta daudelako; horietako gehienak aurreko ekitaldian aitortu ziren.

Diru-sarrera guztien ehuneko 45 zergek, tasek eta bestelako diru-sarrerak osatzen dute, transferentzia arruntek ehuneko 38 eta kapital-transferentziek, berriz, ehuneko 14.

2009ko ekitaldiaren aldean, Udalaren diru-sarrerak ehuneko 4 jaitsi dira. Edonola ere, diru-sarrera arruntak ehuneko 5 igo dira, biztanleriaren

igoeragatik eta Ardoi sektoreko hirigintza-jarduerengatik lortutako diru-sarrerei esker, eta horrek berdinu egin du diruzaintzak sortutako interesen beherakada. Kapitalaren eta finantza-eragiketen ondoriozko diru-sarrerak, aldiz, ehuneko 36 jaitsi dira, bereziki toki-inbertsioetarako estatuko funtsetik lortutako diru-sarrerak (2,3 milioi, 2010ean, berriz, 1,7 milioi) eta Ardoi sektorea hiritartze-kuenten bidezko diru-sarrerak behera egin dutelako, 2009an amaitu baitzen horien kobrantza (0,6 milioi, 2010ean, aldiz, 19.737 euro).

Hona kapituluak bereizirik:

Diru-sarreren kapitulua	Aitortutako eskubideak, 2010	Aitortutako eskubideak, 2009	Aldea (%) 2010/2009
1. Zuzeneko zergak	3.010.842	2.637.639	14
2. Zeharkako zergak	286.946	36.388	689
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.607.964	2.677.558	-3
4 Transferentzia arruntak	4.932.147	4.575.991	8
5. Ondarearen diru-sarrerak	349.825	703.802	-50
Diru-sarrera arruntak	11.187.724	10.631.378	% 5
6 Inbertsio errealeen besterentzea	0	9.359	-100
7 Kapitaleko transferentziak	1.881.198	2.928.347	-36
8. Finantza-aktiboak	20.907	16.381	28
Finantza-eragiketen eta kapitalaren diru-sarrerak	1.902.105	2.954.087	-% 36
Diru-sarrerak, guztira	13.089.829	13.585.465	-% 4

Taula honetan aitortutako eskubideek udal-zerga bakoitzari dagokionez izan duten bilakaera erakusten da:

Diru-sarreren kapitulua	Aitortutako eskubideak, 2010	Aitortutako eskubideak, 2009	Aldea (%) 10/09
Lurraldeko kontribuzioa	1.747.837	1.468.026	19
Ibilgailuak	603.386	605.733	-0,5
Lursailen balioa handitzea	452.373	399.472	13
JEZ	207.246	164.408	26
EIOZ	286.946	36.388	689
Guztira	3.297.788	2.674.027	% 23

Ikus daitekeenez, ia zerga guztietan izan da igoera nabarmena, Ardoi sektoreko jarduerak eragina (etxebizitzaren eraikuntza eta salmenta eta herritar berriak). EOIZen igoera zehaztu beharra dago, izan ere, 2009an zerga horren itzulketa ugari egin ziren –255.108 euro– etxebizitzak eraikitze lanak gelditu zirelako; itzulketa horiek EOIZen kontusailari egotzi zitzaizkion, eta horregatik murriztu zen horri zegokion guztizko aitortua. Horien ondo-

ririk gabe, 2010ean aitortutako eskubideak bat datoz ia erabat 2009koekin.

Udalak aplikatutako tasak, lurraldearen kontribuzioaren eta lursailen balioaren igoerari dagokionez, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen tarte baxuan kokatzen dira, eta JEZari eta EIOZari dagokionez tarte altuan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	2/1995 FL	Udala, 2010
Lurraldeko kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	0.162
JEZ	1 eta 1.4 bitarte	1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2 eta 3,8 bitarte	2,8 eta 3,1 bitarte
Karga-tasa	8 eta 20 bitarte	9,46
EIOZ	2 eta 5 bitarte	5

Udalak ez ditu 2010eko ekitaldirako tasak eta tarifak aldatu.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusail lagin bati azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

#### VI.6. GORABEHERAK

Erakunde autonomoek ez dute Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztu 2010ean hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena. Txosten hau izapidetzen ari den unean aurkezten ari dira aitortpen horiek.

Udalak emandako informazioaren arabera, 5 prozedura judizialeetan dago sartuta 2010eko abenduaren 31n. Ez da aurreikusten horien ebazpenak ondorio ekonomiko aipagarriak izango dituenik Udalarentzat.

• Patronatu guztiek beste hirugarren batekin egiten dituzten eragiketa guztien urtez urteko aitortpenak aurkezteko aholkua ematen dugu, hori ez betetzeagatik sorten diren zerga-zigorrek saihesteko.

#### VI.7. HIRIGINTZA

Udalaren hirigintzako departamentua/unitatea honako hauek osatzen dute, udal-idazkariaren zuzendaritzapean:

- Aparejadore bat
- Bi ofizial
- Administrari-laguntzaile bat

Horrez gainera, Udalak, 2010ean, 25.189 euroko kanpo-aholkularitzari –aholkularitza tekniko eta juridikoa– dagozkion betebeharrak aitortu ditu.

Zizur Nagusiko Udalak 2004an onartutako udal-plana aurreko hirigintzako legediaren arabera erredaktatu zen eta, alderdi aipagarrienei dagokierenez, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea egokitu zen.

Udalak ez du lursailen udal-ondarearen erregestrorik, zeinetan jaso behar den lursailen sarre-rak edo eskudirutan egindako diru-sarrerak eta LFOTUn ezarritako helburuetarako irteerak. Edonola ere, eragindako baliabideen eta horien aplikazioaren jarraipena egiten da.

2010eko ekitaldian Ardoi sektorearen plan partzialean bi aldaketa nabarmentzen dira, hirigintzaren alorreko premiazko neurriei buruzko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen babespean eginak. Aldaketa horien ondorioz, 64.908 m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna handitu da eta babespeko etxebizitzak egiteko erabili dira.

Era berean, 2010ean eraikigarritasunari buruzko hirigintzaren alorreko hiru hitzarmen izenpetu dira partikularrekin, aipatutako 6/2008 Foru Legearekin bat eginez. Horietako bi eraiki beharreko etxebizitzaren tipologiaren aldaketari dagozkie –familia bakarrarentzako etxebizitzatik izatetik etxebizitza kolektibo babestuak eta askeak izatera–, eta hirugarrena, hezkuntza publikorako hornidurarako lursail baten doako lagapenari dagokio.

Udalaren memorian zehatz-mehatz azaltzen dira ekitaldi horretan hirigintzaren alorrean egindako jarduerak.

Egindako azterketaren arabera, Udalak zentuz betetzen ditu hirigintzako proiektuetan legezko zehaztapenak.

Gure aholkuak:

• *Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa sortzea, LFOTUn aurreikusten dena beteaz.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean den araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



